

10. ikasgaia.

## **ANTOLAKUNTZA JUDIZIALA (III): LANGILEAK**

### **1. Botere judizialaren antolakuntzaren zerbitzuean dauden langileak: jurisdikzio-langileak**

**Jurisdikzio-langileak:** kategoriak

- a) Epaille bilakatzeko modua: oposizioa (BJLOaren 301. art.)
- b) Magistratu bihurtzeko moduak: BJLOaren 311. art.

2/4 Maila-zerrendako lehendabiziko postuentzat

1/4 Froga berezi batzuen bidez

1/4 Lehiaketa (10 urte baino gehiago daramatzatenak eta idazkari judizialentzat bakarrik)

- c) Auzitegi Goreneko magistratu bihurtzeko moduak: BJLOaren 343. art.

4/5 BJKNak, Magistratuen artean hautatzea

1/5 BJKNak, gaitasun juridiko onartuta daukatenen artean hautatzea (15 urte baino gehiago)

### **2. Botere judizialaren antolakuntzaren zerbitzuean dauden langileak: ahalmen jurisdikzionalik ez duten langileak (laguntzaileak eta kolaboratzaileak)**

Ahalmen jurisdikzionalik ez duten langileen motak: laguntzaileak eta kolaboratzaileak

- a) Laguntzaileak:

- Osatua:

- Idazkari Judiziala (BJLOaren 440. artikulua eta hurrengoak)
- Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko funtzionarioak eta Izapide Prozesal eta Administratiboko eta Laguntza Judizialeko taldeko funtzionarioak (BJLOaren 470. artikulua eta hurrengoak)
- Auzitegiko medikuak (BJLOaren 479. art.)

- Ez osatua:

- Polizia judiziala. Bere dependentzia (funtzionala eta organikoa)
- Kreditu-erakundeak

- b) kolaboratzaileak:

- Ministerio Fiskala:

- Funtzioak eta printzipioak
- Kategoriak
- Jarduera

- Estatuaren Abokatuak (BJLOaren 551. art.)

- Abokatu eta Prokuradoreak (BJLOaren 542. eta hurrengo art.)

## 1. BOTERE JUDIZIALAREN ANTOLAKUNTZAREN ZERBITZUPEAN DAUDEN LANGILEAK: JURISDIKZIO-LANGILEAK

Atal honetan, Lege Organikoaren 299. artikulua aipatuko dugu; horren arabera, **hiru kategoria** egongo dira karrera judizialean: epaile, magistratu eta Auzitegi Goreneko magistratua. Puntu honetan, alde batetik, karrera judizialean sartzeko bideak ikasiko ditugu eta, bestetik, kategoria batetik beste batera pasatzeko moduak.

**a)** Hasteko, **epaile** bilakatzeko moduari begira, beharrezkoa izango da oposizio bat gainditzea (BJLOaren 301. art.), eta, hartan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da 302. artikuluko baldintzak betetzea (hots, espainiarra, adinez nagusia eta zuzenbidean lizentziaduna izatea).

Karrera judizialean eta karrera fiskalean sartzeko oposizioak batera egiten dira eta, horiek gaindituta, karrera bat edo bestea hautatuko dute hor lortutako puntuazioaren arabera (BJLOaren 301.4. artikulua). Bukatzeko, frogak gainditu dituztenek ikastaro teoriko-praktiko bat egin beharko dute Eskola Judizialean.

**b) Magistratuen** kasuan, ostera, karrera judizialean sartzeko bide gehiago daude irekita (esaterako, lehiaketa onartu egiten da). Botere Judizialaren Lege Organikoaren 311. artikulua zehazten dizkigu bide horiek:

- Magistratu-postu guztietatik, bi laurdenak maila-zerrendan lehendabiziko postuetan dauden epaileei dagozkie.
- Hirugarren laurdena epaileen artean egiten diren froga berezi batzuen bidez betetzen da.
- Bukatzeko, laugarrena lehiaketaren bitartez beteko da, gaitasun onartua duten eta jarduera juridikoan 10 urte baino gehiago daramatzaten pertsonen artean egindakoa. Horiek ere, epaileekin gertatzen zen moduan, ikastaro bat egin beharko dute Eskola

Judizialean (BJLOaren 301.5. art.). Hala ere, laurden horren herena 1. edo 2. kategoriako idazkari judizialei erreserbatuko zaie.

**c)** Beste alde batetik, **Auzitegi Goreneko Magistratu** bihurtzeko bi bide ditugu, Lege Organikoaren 343. artikuluan daudenak:

- Bost postutik, lau, gutxienez 10 urtez magistratu kategorian eta 15 urte baino gehiago karrera judizialean daramatzatenean artean beteko dira.
- Bosgarren postua jarduera juridikoan 15 urte baino gehiago daramatzaten eta gaitasun onartua duten lagunen artean beteko da.

Garrantzitsua da aipatzea Auzitegi Goreneko Magistratuen postu guztiak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak izendatzen dituela; hau da, lehen aipaturiko ezaugarriak dituztenean, Kontseilu Nagusiak aukeratuko ditu nahi dituenak; beraz, kasu horretan ez da maila-zerrenda kontuan hartuko.

## **2. BOTERE JUDIZIALAREN ANTOLAKUNTZAREN ZERBITZUPEAN DAUDEN LANGILEAK: AHALMEN JURISDIKZIONALIK EZ DUTEN LANGILEAK**

Orain arte jurisdikzio-langileez hitz egin dugu, hau da, epaile eta magistratuez, horiek baitira ahalmen jurisdikzionala egikartzeko gaitasuna dutenak. Baina, Justizia Administrazioan, ahalmen hori egikaritzen ez duten bestelako langileek ere badihardute, eta horiei buruz mintzatuko gara hemendik aurrera. Haien artean, bi talde daude: laguntzaileak eta kolaboratzaileak. Lehenengok pertsonal jurisdikzionalaren menpean jardungo dute; bigarrenak, berriz, ez dute haiekiko menpekotasunik izango. Lehenengo multzoaren barruan, beste banaketa bat ere egin beharko genuke: organo jurisdikzionalan osatuta dagoen pertsonala eta osatuta ez dagoen pertsonala.

### **LAGUNTZAILE OSATUAK**

### a) Idazkari Judiziala

Idazkari judizialen figura Lege Organikoaren 440. artikulua eta hurrengoak arautzen da; horiek talde bakarra osatzen duten arren, hiru kategoria ezberdin daude. Dena den, talde horren partaide izateko, beti ere, 3. kategoriatik sartu behar izango da.

3. kategoria horretan sartzeko, bi bide ditugu: batetik, hutsik dauden postuen erdia oposizio edo lehiaketa-oposizioaren bidez beteko da; bestalde, gainontzeko erdia barne-promozioari gordeko zaio, oposizio-lehiaketa gainditu eta gutxienez bi urtez kudeaketa prozesal eta administratiboko taldeko funtzionario gisa daramatenentzat (BJLOaren 442.1. eta 442.2. art.).

Idazkarien taldean sartzeko bidea edozein izanda ere, ezinbestekoa izango da zuzenbidean lizentziaduna izatea, espainiarra izatea eta bateraezintasun- edo ezgaitasun-arazorik ez izatea. Gainera, azaldutako hautapen-frogak gainditzeaz gain, dagokien ikastaro teoriko-praktikoa ere egin beharko dute (BJLOaren 442.3. art.).

Idazkarien **betekizunak**, 452. artikuluan eta hurrengoetan jasota daude, eta honako hauek dira aipagarrienak:

- Esklusiboki fede publikoa emateko gaitasuna izatea da garrantzitsuena, hau da, haien sinadura daramaten dokumentu edo agiriak egiazkotzat joko dira prozesuan. Era berean, auzian zehar baliabide teknikoak erabiltzen direnean, idazkari judizialak bertan grabatutakoaren benetakotasuna bermatuko du.
- Egintza judizialen testigantza edo zertifikazioak emango dituzte.
- Auzietarako botereen esleipena baimendu eta dokumentatuko dute.
- Langileen antolakuntza-, kudeaketa-, ikerkuntza- eta zuzendaritza-eskumenak izango dituzte alderdi tekniko-prozesalei dagokienez.
- Alderdiei, edo interes legitimo zuzena dutenei, jarduera judizialei buruzko informazioa eskainiko diete.
- Kontu emateaz arduratuko dira.
- Prozesuari bultzada emango diote, lege prozesalek ezarritakoaren arabera.

**b) Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko funtzionarioak eta Izapide Prozesal eta Administratiboko eta Laguntza Prozesaleko Taldeko funtzionarioak**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 470. artikuluetan eta hurrengoetan aurki dezakegu funtzionario horiei buruzko araudia. Hiru talde horiek Justizia Administrazioaren zerbitzuplean dauden talde orokorrak deritzenak osatzen dituzte. Bestalde, lanbide edo titulazio zehatz bat egikaritzea dakarten talde bereziak ere aurki genitzake, hala nola, auzitegietako medikuak –geroago aztertuko ditugunak-, laborategiko laguntzaileak, eta abar.

Estatuan talde bakarra osatzen duten arren (BJLOaren 470.2. art.), talde horren inguruko eskumenak bereganatu dituzten Autonomia Erkidegoek oposizioak deitu edo iragar ditzakete. Era berean, oposizioen gai-zerrenda Estatu osoan bakarra izango bada ere, Autonomia Erkidego bakoitzean, hizkuntza eta foru-zuzenbide zibilari buruzko ezagutza-frogak ezberdinak izango dira (hala ere, froga horiek ez dira baztertzailak izango, BJLOaren 483.2. artikulua araberaren arabera).

Gainera, eta Lege Organikoaren 475. artikulua dioen moduan, talde bakoitzaren oposizio edo lehiaketa-oposizioan (BJLOaren 484. art.) parte hartu ahal izateko, **titulu** jakin bat izatea eskatzen da; eta honela, bada, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Taldeko kidea izateko, unibertsitateko diplomatua –edo honen parekoa- izatea eskatzen da; Izapidetza Prozesal eta Administratiboko Taldean sartzeko, batxilergo titulua –edo parekoa- galdatzen da; eta, azkenik, Laguntza Judizialeko Taldean, DBHko titulua –edo haren parekoa-.

Talde orokor horietarako hautaketa-prozesuak ikastaro teoriko-praktiko bat egitea edo praktika denboraldi bat igaro izana eskatzen du (BJLOaren 485. artikulua). Horrez gain, hutsik dauden postuen erdia barne-promozioaren bidez beteko da; beti ere, dagokien titulua eta bi urtetako antzintasuna izatea nahitaezkoa da (BJLOaren 490. artikulua).

Talde horien funtzionarioei dagozkien **betekizunei** begira, honako hauek azpimarra genitzake:

- Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Taldeko funtzionarioen eginkizunak Lege Organikoaren 476. artikuluan jasotzen dira, besteak beste: prozedurak izapidetzeko modua kudeatzea, idazkari judizialari kontu emanez; bahimenduak, kanporatzeak eta beste egintza batzuk dokumentatzea; idazki eta agirien erregistro eta banaketa-lanak egitea; autoetan dauden idazkien kopia arruntak interesatuei ematea; eta abar.
- Bigarren taldearen –Izapidetza Prozesal eta Administratiboko Taldearen- eginkizunak hurrengo artikuluan (477. art.) araututakoak dira; esan daiteke batez ere aipatu ditugun kudeaketa prozesalaren betebeharren inguruan laguntza ematea dagokiela, besteak beste: gutunak erregistratzea eta sailkatzea; prozeduren izapidetze orokorra, dagokien bide mekaniko edo ofimatikoak erabiliz, eta abar.
- Azkenik, Laguntza Judizialeko Taldeari 478. artikuluan araututako betekizunak dagozkie: epaitze, jakinarazpen eta antzeko egintzak egitea; bahimenduak eta kanporatzeak gauzatzea; bistako geletan ordena mantentzea, eta abar.

### **c) Auzitegietako medikuak**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 479. artikuluan daude araututa auzitegietako medikuak. Artikulu horren arabera, Justizia Administrazioaren zerbitzupean dagoen talde berezia da, eta Ministerio Fiskalari eta organo jurisdikzionaleri laguntza teknikoa ematea dute eginkizun nagusia, eta baita erregistro zibilean jardutea eta atxilotuak zaintzea ere, besteak beste.

Auzitegietako mediku izateko baldintzei dagokienez, medikuntzan lizentziaduna izateaz gain, dagokien oposizioa edo oposizio-lehiaketa gainditu beharko dute.

## **OSATUTA EZ DAUDEN LAGUNTZAILEAK**

### **a) Polizia Judiziala**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 547. artikuluan eta hurrengoetan dago araututa Polizia Judiziala; horrez gain, 2/1986 Lege Organikoak aurrekoan xedatutakoa garatzen du.

Hasteko, Polizia Judiziala benetako polizia judiziala ez dela esan beharko genuke, epaile eta magistratuen dependentzia organikoaren baitan ez dagoelako. Hala ere, epaile eta fiskalen esanetara egongo da legeak xedatutakoaren arabera, Konstituzioaren 126. artikulua dioen moduan: “Polizia Judizialak auzitegi eta Ministerio Fiskalaren menpean dihardu delituak ikertzeko, delitugileak aurkitzeko eta horien segurtasuna zaintzeko, legeak ezarritako baldintzen arabera”.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 547. artikulua dio poliziaren talde guztiek polizia judizialaren eginkizunak bete ditzaketela, hau da, bai Estatuko Gobernuaren, bai Autonomia Erkidegoen eta baita erakunde lokalen menpe diharduten taldeek ere (esaterako, ertzaintzak, polizia nazionalak, guardia zibilak, udaltzaingoek).

Hala eta guztiz ere, hurrengo artikuluari begiratuz gero, esan daiteke Polizia Judiziala epaile eta fiskalen **menpekotasun funtzionalaren pean** egongo dela, eta horrek Barne Ministerioarekiko **menpekotasun organikoa** dakar. Beraz, Polizia Judizialak betekizun judizialak baditu ere, Barne Ministerioaren aginduetara dago (hau da, bere azken nagusia Barne Ministroa izango da, eta ez fiskala edo epailea).

Ondorioz, Barne Ministerioarekiko duen harreman organiko horrek poliziaren independentzia urratzea ekar dezake, eta, halakorik gerta ez dadin — hau da, balizko esku-sartze horiek eragozteko—, Lege Organikoaren 550.2. artikulua dio agente bat auzi batetik aldentzeko beharrezkoa dela Ministerio Fiskalaren edo epailearen onarpena.

Polizia Judizialaren betekizunak Botere Judizialaren Lege Organikoaren 549. artikuluan agertzen zaizkigu; horien artean nagusienak penalak diren arren, beste izaera batekoak ere badirela antzeman dezakegu: indarraren beharra duten egintzen burutze materiala, agente judizialak edo fiskalak emandako aginduak betetzeko bermea, agente judizialari edo fiskalari laguntza ematea beren egoitzatik at egin beharreko egintzetan, eta abar.

## **b) Kreditu-erakundeak**

Organo jurisdikzional guztiek banku-kontu bat izan beharko dute bildutako dirua gordetzeko. Diru hori bermeetatik edo helegite jakin batzuk jartzeko eman behar den gordailuetatik etor daiteke, eta ez da epaitegietan bertan gordetzen, banku-kontu batean baizik. Horregatik, osatua ez dauden laguntzaileen artean, kreditu-erakundeak ere aipatu behar dira.

## **KOLABORATZAILEAK**

Lehen esan bezala, langile horiek ez dira jurisdikzio langileak izango — beraz, ez du jurisdikziorik egikarrituko— eta ez du inolako menpekotasunik izango organo jurisdikzionalarekiko, ez funtzionala ezta organikoa ere. Ondorioz, prozesuan askatasun osoz edo inongo menpekotasunik gabe dihardute, eta bakoitzak bere antolatzeko edota jarduteko joerak izango ditu. Horien artean, Ministerio Fiskala, Estatuko abokatuak, abokatuak eta prokuradoreak aztertuko ditugu:

### **a) Ministerio Fiskala**

Ministerio Fiskalaren inguruko araudia honako leku hauetan topa dezakegu: Konstituzioaren 124. artikuluan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 541. artikuluan, eta batez ere, Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoan (50/1981 Legea, alegia, Ministerio Fiskalaren antolakuntza konplexua ezartzen duena).

Aipatu berri dugun Botere Judizialaren Lege Organikoaren artikulua arabera, Ministerio Fiskalak honako **eginkizun** edo funtzio **hauek** beteko ditu:

- Justizia egiten dela sustatzea, legaltasunaren, herritarren eskubideak eta legeak babestutako interes publikoa babestuz
- Auzitegien independentzia zaintzea
- Auzitegien aurrean interes sozialak asetzen saiatzea



Funtzio horiei dagokionez, laburbilduz, esan daiteke Ministerio Fiskalari interes publikoa edo interes soziala babestea dagokiola, baina egokiak diren uziak mantenduko dira auzitegien aurrean eskatuz, berak ezin baititu uzi horiek ebatzi –gogora dezagun ahalmen juridikzionalik ez duela-.

Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoak xedatzen du Ministerio Fiskalaren jardura batasun eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioetan oinarritzen dela. **Batasun-printzipioak** esan nahi du Estatuan Ministerio Fiskal bakarra —talde bakarra, hain zuzen ere- egongo dela. **Menpekotasun hierarkikoari** dagokionez, printzipio hori bi mailatetik azter daiteke:

- Kanpoko mailatik, ikusten da Botere Betearazlearekiko harremana menpekotasunezkoa dela; adibidez, Estatuko Fiskal Orokorra Gobernuak berak izendatzea da horren islada, Konstituzioaren 124.4. artikulua dioen moduan.
- Menpekotasun hierarkikoak. Barneko mailatik ikusita, berriz, argi dago Ministerio Fiskalaren antolakuntza bera hierarkikoa dela; ondorioz, oro har, beherago dauden fiskalek gorago daudenek agindutakoa edo esandakoa bete beharko dute. Hala, Fiskal Orokorrak organo bakoitzeko Fiskal Nagusiari aginduak eman diezazkioke, eta horrek, aldi berean, gauza bera egin dezake bere menpekoekin.

Fiskalaren **kategoriei** dagokienez, esan daiteke Fiskaltzan -edo karrera fiskalean- hiru kategoria daudela, jurisdikzio-langileentzat aipatutakoekin parekoak izango direnak: lehendabizikoa, Auzitegi Goreneko Gelako fiskala — Auzitegi Goreneko magistratuaren parekoa dena—; bigarrena, fiskala — magistratuaren parekoa— eta, hirugarrenez, abokatu fiskalak izenekoak — epaileen parekoak—.

Fiskala izateko oposizioa gairitu beharra dago -ez baitago beste biderik- eta, kategoriaz aldatzeko, antzintasuna eta froga berezi batzuk hartuko dira kontuan (dena den, Auzitegi Goreneko Gelako fiskalaren kategoria, Gobernuaren erabakien bidez lortzen da).

Horrez gain, aipatzekoa da kasuen konplexutasuna dela-eta **fiskaltza berezi batzuk** sortu direla, hala nola, delitu ekonomikoen kontrakoa eta droga-

trafikoaren kontrakoa; nolana ere, eta batasun-printzipioagatik, gainontzeko fiskalekiko harremana mantenduko dute; hau da, ez dira gainontzeko fiskalekiko independenteak izango (hain zuzen, Estatuko Fiskal Orokorraren agintepean egongo dira).

Fiskalen **jarduerari** dagokionez, hasiera batean eman dezake beren eginkizuna esparru penalean agortzen dela; baina, eginkizunik nabariena edo ezagunena esparru penalean gertatzen bada ere, batzuetan, prozesu zibilean ere hartuko dute parte. Puntu honetan, eta hurrengo ikasgaietan zehazkiago azalduko dugun moduan, prozesu zibil gehienek aukera-printzipioa oinarri dutela aipatu beharko genuke; baina, orobat, badaude behar-printzipioan oinarritutako beste batzuk (hala nola, filiazio-prozesua). Azken prozesu horietan, alderdiek ezin dute prozesuaren objektua erabili; hau da, prozesuan jokoan dagoen interesa publikotzat jotzen da eta, ondorioz, baliteke Ministerio Fiskalak parte hartzea. Lehen esan bezala, Ministerio Fiskalaren eginkizunetariko bat epaitegien aurrean interes soziala zaintzea da, eta, xede horrekin, legeak interes hori jokoan dagoen prozesu jakin batzuetan parte hartzea ahalbidetzen dio (esaterako, adingabe bat prozesu bateko alderdia denean, fiskalak bera babesteko hartuko luke parte).

### **b) Estatuko abokatuak**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 551. artikuluan ikus dezakegu Estatuko abokatuei buruzko araudia; horren arabera, horiek Justizia Ministerioaren menpe jardungo dute.

Aipatutako artikulua horrek dioenez, Estatua eta haren erakunde autonomoak babestea eta ordezkatzea izango da horien eginkizuna.

Horrez gain, Autonomia Erkidegoak eta toki-erakundeak ordezkatu eta babestea beren abokatuei dagokie, erakunde horiek abokatu kolegiatua izendatzen ez duten bitartean. Beraz, toki-erakundeek eta Autonomia Erkidegoek, alde batetik, beren abokatuak izenda ditzakete eta, bestetik, kolegiatuta dauden abokatuak, beren babeserako.

### **c) Abokatuak eta prokuradoreak**

Abokatuei eta prokuradoreei buruzko aipamenak Botere Judizialaren Lege Organikoaren 542. artikuluan eta hurrengoetan aurki ditzakegu, eta baita araudi hori garatu duten 658/2001 eta 2046/1982 Errege Dekretuetan ere, hurrenez hurren.

**Abokatuei** dagokienez, lehenengo eta behin ñabardura terminologiko bat egin beharko genuke: unibertsitateko zuzenbide-ikasketak amaitzeak zuzenbidean lizentziadun bihurtzen du pertsona bat, ez, ordea, abokatu. Abokatu gisa jarduteko, beharrezkoa da dagokion abokatu-elkargoan izena ematea; horretarako, noski, ezinbesteko baldintza zuzenbidean lizentziatudun izatea da.

Abokatuak prozesu bateko alderdiak edo horien interesak babestuko ditu, zuzenbidean aditua den pertsona batek (abokatuak) alderdien interesak berek baino hobeto babestuko dituela pentsatzen baita; horregatik, ordenamendu juridikoak ia-ia prozesu guztietan abokatuaren presentzia galdatzen du. Abokatuak interes horiek babesteko, alderdiekin izango duen lan-hitzarmena zerbitzuak alokatzeko kontraturen bidezkoa izango da.

Abokatuen Estatutua, esan dugun bezala, 658/2001 Errege Dekretu bidez ezarri zen, eta beren jarduera profesionalarekin lotutako sekretu profesionala mantentzeko eskubidea da hortik ondorioztatzen den ezaugarri nagusienetariko bat. Gainera, Estatutuak abokatu-elkargo bakoitzak onartutako ofizio-txanda ezartzen du; horren bidez, diru-sarrera txikiak dituzten pertsonen doako laguntza juridikoa emango zaie.

**Prokuradorea** alderdiak ordezkatzeko dituen pertsona izango da. Ordezkatzeko horren bidez, epaileak ebazpen bat ematen duenean, alderdien prokuradoreari bidaliko dio alderdiei zuzenean bidali beharrean, horrek alderdiari ebazpenaren edukia jakinaraz diezaion.

Prokuradorea izateko, beharrezkoa da zuzenbidean lizentziaduna izatea eta prokuradore-elkargo batean izena ematea. Beste alde batetik, alderdiekin duten lan-harremana mandatu ordezkatzailerik kontraturen bidez gauzatuko da, eta hori ahalordearen bitartez egiten da.

